

# Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1995eko abendua 8zk

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1<sup>a</sup> EZK.

*Urte berri on*

*Maderas Gallastegui, s.a.*

MENDI UZTIKETA ETA ZERRA MEKANIKOA  
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

## Idatzi aurretik pentsatu

Eduardok, gure eskutitzari egingandako erantzuna irakurri ondoren ez dakigu ondo zer pentsatu. Badirudi guri kritika bat egin beharrean, deskalifikazio pertsonalerantz jo duela (amorratuak eta itsuak omen gara), guk idatzitakoa rebatitu nahi baduzu, datuak eta frogak eman, ez baita nahikoa egia dela esatea. Non dago mendi bizikleta zirkuitoa? Non auditoriuma? Zer bete beharko luke Asentziok parke naturala izendatua izan dadin?

Sekula ez dugu ukatu Elgetako udaletxean proiektu asko egiten ez direnik, baizik eta berauen egokitasuna, kantitateak ez baitu kalitatea egiten. Adibidea, eskola berriak, ez al dira haundiegia datoren urtetik aurrera geldituko den ume kopuruarentzat? Eta benetan uste al duzu Elgetak bariantea behar duela? Ez al da hobeto Salvador kaleari irtenbidea ematea eta bestea dagoen moduan lagatzea? Hala korrika zoazenean Elgeta hormigoia eta asfaltoz inguratua ikusi nahi al duzu?

Beste batzuk ez dira egiten, edo eta ez zaie lagun-tzen. Adibide bat nahi al duzu? Zure ideiak espresatzeko aukera eman dizun aldizkari honek 9.alea atera behar duenean, ez du oraindik txakurraundirik jaso udaletxetik.

Azkenik zera uste dugu, ez duzula gure eskutitza bi aldiz irakurri, Elgeta kanpoaldera saltzearen kontzeptua ez baituzu ulertu. Berriro irakurtzera gonbidatzen zaitugu eta nahi izanez gero kafe bat hartuz eztabaida genezake.

*Mielotsin eta Arix.*

## Egi guztia esan behar da

Zubiaurre Jauna:

Egia da Elgetak aurrera egin duela, baina ez beste herri batzuk baino gehiago. Herri honen kokapena, berez da ederra eta proiektu urbanistikoek politagoak ematen dutela besterik ez da gertatzen.

Industria, kultura, turismo aldetik ezin uka genezake pausu bat eman duenik; baina kontu egizu, 1000 biztanle baino gutxiago dituen herri honetan, dedikazio eskusiboa duen alkate bat dugula, soldata on batekin, eta inguruan, langile pilo bat (tekniko, gestore, koordinatzaile...) herritarrek beraien izerdiz ordaindurik.

Ezagutzen al duzu Zubiaurre Jauna herri honen zorra? Enpresa pribatua balitz etorkizunik ez luke izango.

Azkenik Zubiaurre Jauna, zera esango dizut, hainbeste zoriontzen duzun alkatearekin nik eta niere familiak jasan duena pasako bazenu zure iritzia bestelakoa izango litzatekela. Nire guraso eta aitonen etxeak 100 urte ditu, eta Bergarako bailarara ikuspegi zoragarria zuen orainsu arte (zure etxeak duena gaur egun), krudelkeriaz eta indarrez kendua izan zaigu, alkatearen gorroto, bekaizkeri eta burugogorkeriarengandik.

Zuk horrelakorik inoiz ez jasatea espero dut.

Garbiñe Etxebarria (Erizaina)

## Patxi Basauriri erantzunez

Azaroko *Goibekokalen* agertzen diren Patxiren iritzi batzuk intsumisioari buruz, kriston harridura sortu digute, eta erantzun beharre-

an aurkitu gara. Nola esan liteke mozio baten zai dagoela erabaki bat hartzeko intsumisioari buruz, berak eta bere taldekoek erabakiak hartu bazituzten. 1.988-1-26 eta 1.993-7-21ean HBk aurkeztutako mozioen punturik garrantzitsunen kontra eginez.

1.993ko mozioan esaten zenez:

1: Espainiako armadari laguntza ez eskatzea. PNV laguntza ematen jarraitzearen alde eman zuten botoa.

2: kontzientzi eragozpen legea onartzea eskatzen zen. Puntu honen kontra bozkatu zuten PNVkoek.

3: Euskal gazteak soldadutza ez egiteko duten eskubidea onartzea. PNVkoek honenkontra bozkatu zuten.


4-5: onartu zituzten, gazte intsumitu prozesatuei laguntzea eta udaletxeak informazioa zabaltzea.

Pleno berean beste mozio bat ere aurkeztu genuen. HBkook, bertan, bereziki, epaituta dauden alkate intsumisioei eta era berean intsumisio guztiei elkartasuna eskaintzea. Ejertzitoarekin ez kolaboratzeagatik epaituta dauden alkateei ere elkartasuna eskaintzea.

Puntu honen kontra ere egin zuten PNVkoek, euren gehiengoaz Elgetako udaletxeak intsumisioa ez du onartzen eta Espainiar Ejertzitoarekin kolaboratzen jarrai-tzen du. HBren iritziz Elgetar gehienak onartuko zituzten mozio hauek, intsumisioen aldeko jarrera herritarren gehiengoak onartzen duelako.

Baina, PNVkoek atzera egiteko prest badaude, gu gertu gaude intsumisioaren aldeko erabakia hartzeko. PNVren esku dago.

Elgetako HB



*Estampaciones*

**Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



## Euskal Herriko Unibertsitatea

**G**aur egungo Euskal Herriko unibertsitateari (E.H.U) buruzko zenbait argibide aipatzera natorkizue. Ez dakit gogoratuko zareten, baina duela egun batzuk Leioako E.H.U.ko kanpusean izugarritzako bronka egon zen. Istiluak manifestazio baten ostean sortu ziren. Manifestazio horren bidez, Protecssa (seguritateko guardak) eta Ertzaintzaren aurreko azken egunetako aktuzioa salatzea nahi genuen. Aurreko egun horretan, irakasle asoziatu kanporatuak fisikako ikasleei klasea ematera abiatu zenean Protecssakoek ez zioten utzi eta kanpusetik kanporatzen saiatu ziren. Irakasle kanporatu hauek, lau kazetaritzakoak eta fisikako bestea, orain dela bi urte kanporatuak izan ziren. Gaur egun, ezin dute klaserik eman. Badakizue zergaitik?

Beraiek E.H.U. euskalduna eta hemengoa izatea nahi dutelako. Bertako irakasle propioarekin eta ez orain arte bezala Estatu espainiarrekoarekin.

Hori dela eta eman dira azken hilabete edo urte hauetako gatazkak. Euskal adarreko guztion nahia da E.H.U. guztiz euskalduna izatea eta horretarako ezinbestekoa da Euskal irakasle propioa izatea.

Heldu dira iada hauteskundeak eta errektordutza aldaketa egon da Pello Salaburu izan da postu horretarako aurkeztu den bakarra zein azken lau urtetan errektore ordea izan den. Hau jakinda behintzat, aldaketak onerako izan beharko luke. Horren esperoan, eta egunen batean egia bihurtu dadin borrokan jarraituko dugu.

Amaia Askasibar.



## Olentzerori

**O**lentzero Olentzero, Gabon aurretik zure mendiko bordara igorri nizkizun eskariak betetzerik ez duzula izan ikusten dut.

Banekien lortzeko opari saila zela, baina banuen zuregan konfidantza.

Konprenitu dut zuretzat ere lan zailegia dela, *Goibekokalekoentzat* udaletxetik diru apur bat lortzea. Badakit diruz urri dabiltzala baina aldizkari honetan lanean dabiltzan gazte hauek badute beharra (telefonoa, toki egoki bat eta aldizkaria behar bezala ateratzea posible egingo duen azpiegitura).

Neska-mutil hauek ongi portatu dira aurten eta apiriletik hona hutsik egin gabe, hartu zuten konpromezua aurrera atera dute eta hilero aldizkaria hori izaten dugu etxean.

Txoritxo batek esan didanez, egun batean *Goibekokale* irakurri zenuen, eta orain mesedez hilero ale bat zure bordara bidaltzea eskatu omen duzu. Gainera zure burua promozionatu asmoz, publizitate modulo bat erosi duzula aditu dut.

Olentzero, ez etsi nik egindako eskariaren aurrean. Datorren urteari begira, lan gogorra baitute *Goibekokaleko* gure lagunek. Orain ez bada heldu ere, datorren astean gustora jasoko dute.


Besterik ezean, ikatzari ere ez diote muzin egingo, prest baitaude asteleheneko azokan berau saltzen hasteko; gutxienez disketeak erosteko haina lortuko lukete.

Agur eta datorren urterarte.


**Oharra:** nik ez nizkizun kamixeta eta kantzontziloak eskatu.

Iker Irazabal.

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurilaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen argitaratzailea

## OHARRA

Abenduaren 15ean kalean agertutako idatziaren gainean zerbait argitu beharra daukagu. Isumisioari buruzko idatzian ez da agertzen egilearen izena eta horregaitik ez genuke guk idatzitakoak direla pentsatzea nahi. Ez dugu zer ikusirik.

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Koordinatzaileak:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Eusker arduradunak:** Iban Aranzabal. **Argazkien errebeldia:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Amaia Askasibar, Iker Irazabal eta Nerea Loidi. **Administrazioa:** Esti Retolaza, Susana eta Olaia Jimenez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 768019). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 400 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

## Trafiko multak


Gaizki aparkatutako autoei 2.000ptako isuna ipiniko zaie eta Salvador kalean aldiz, 4.000ptakoa izango da. Autobus, taxi edo oinezkoen zeharbidean daudenei ezarriko zaie. Era honetan, udaletxeak trafiko seinaleak errespeta daitezen nahi du eta isunak jartzen hasi orduko oharrak ipiniko ditu autoetan.

## Juan Mari Marcaide

Jaiotzez elgetarra den astronomo honek, bost herrialde desberdinetako 15 inbestigatzaileen buru da, Valentziako Unibertsitateko sailean. Talde honek lehen aldiz historian, "supernova" baten eztanda grabatu du. "Supernova" hauek, argi disdiratsu bat duten astroak dira eta izarren eztandarekin dute zerikusia.

## Zabor kamioiaren istripua

Abenduaren 12an, Arrota baserriaren ondoan irauli egin zen zaborra garraiatzen duen kamioia. Gidariak ez zuen zauri larririk jasan sudurra hautsi zuen arren. Kamioitzar honek lan handia eman zuen bidetik kendu ahal izateko. Deba Garaiko zabortegira doazen kamioi hauek bizpahiru bider pasatzen dira Elgetatik, eta sarri ikusten ditugu maniobra arazoekin.



Auditoriuma probisionalki egokitzea eskatu zen kultura batzordean.

## EGUBERRITAKO JAIALDIA ATZERATURIK

Abenduaren 23an egin behar zen Eguberritako jaialdia, momentuz bertan behera gelditu da, gimnasioak ez dituelako oinarritzko segurtasun baldintzak betetzen. Horrela erabaki zuten Barne Sailetik bidalitako bi arduradunek. Beste bi aukeren artean frontoia eta eliza zituzten; bi kasuetan baimena izan arren, antolatzaileek toki eze-gokitzat jo zituzten. Antolatzaileek, beste egun baten egiteko aukeraz ere hitzegin zuten, baina toki egoki bat aurkituz gero soilik.

Barne Sailak egindako txosten honetatik zera ondorioztatzen da: Elgetak ez du behar bezalako leku bat, jendaurreko kultur ekintzak burutzeko. Era berean eta irtenbide bat aurkitzen ez bada urtero antolatzen den bertso jaialdia ere bertan behera geldituko litzateke.

Arazo hauek abenduaren 20an hitzegin ziren udaletxean, kulturako batzordean. Bertan proposa-

tutako gauzen artean, auditoriumaren alde bat egokitzea izan zen. Batzarrean eraikuntza honen amaiera hurrengo bizpahiru urtetan gutxienez ez zela egingo aurreratu zen, beraz, etorkizuneko auditoriumak gutxienezko baldintza batzuk izatea proposatu zuten.

### Kulturako aurrekontua.

Gai honekin batera, urteko kultura aurrekontuez ere hitzegin zen. Joan zen urtean bezala, 6 miloi-tako aurrekontu bat aurkeztu zuen German Meabebazterretxeak (kultura dinamizatzailea). Diru faltak direla eta epe luzearako proiektuei laguntza handiagoa ematea pentsatu zen, gauza puntu-alei kenduta. Era honetan, erakus-keta eta antzerki emanaldiak kutxa fundazioak antolatutako kultur ibilaldia aprobetxatuko da, gauza interesgarriak izateaz gain doainekoak direlako.

**OSTATU**  
**DAITXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.  
Karta

**Erosle**

M. Asun Agirre

Salvador 26. Tel: 768190



**KONTXI**  
**ARRANDEGIA**  
Salvador 5 Tel: 768009

# Goibekokale LEHIAKETA ARRAKASTATSUA

**-Aurkeztutako lan guztiek sari berdina merezi dutela erabaki du epaimahaiak-**

Joan den hilabetean *Goibekokalek* antolatutako lehiaketa arrakastatsuzat jo dute antolatzailerek, ez baitzituzten espero hainbeste partaide eta horrelako lan onak ikustea. Aurkeztutako 24 lan horietan, eta epaimahaiaren esanetan, "atzematen da, gogoz lan egin dutela 29 partaideek".

Lan desberdinen artean, Eguberri jaiekin zerikusia duten hainbat gauza egin dituzte: marrazkiak, buztin lanak eta eskulan desberdinak, egurrez, kartoia erabiliz, plastilinaz, josiz egin dituzten lan txoak... eta hainbat apaingai. "Orohar lan polita egin dutela" adierazi zuten lehiaketarako izendatu zen

epaimahaiak. Hau dela eta, "oso zaila zen irabazlea hautatzea" batez ere, "lan askotan, oso politik izan arren, gurasoen eskua ikus zitekeelako". Ondorioz "umeek eginiko lanak baloratzea zaila gertatu zaigu". Horregaitik denei sari bat ematea eta inor ez bereiztea erabaki zuten, era honetan, umeen arteko "liskarrak" ekiditzea nahi izan dute.

Lehiaketak izan duen arrakasta kontutan izanik, datorren urtean bi desberdin antolatzea erabaki du aldizkariak: batetik umeak izango dira eta bestetik guraso eta nagusiak.

Sari banaketa plazan egin zen abenduaren 23an eta parte hartzaile bakoitzari liburu bana eta oroigarri bat eman zitzaion.

Aldizkari-ko antolatzaileren ustez Zorionak eman behar zaizkie parte hartu duten guztiei eta datorren urtean antolatzen diren ekintzetan parte hartzera animatzen ditu.

Urtarrilaren 3an, parte hartzaileek beraien lana jaso ahal izango dute. Kultur Etxean 6tik, 7etara.



Sari banaketan urduritasuna nabari zen neska-mutikoen artean, azken unerarte ez baitzuten jakin denak izan zirela irabazle.

## Energia Eolikoa

Haizearen indarrak baliatuz energia lortzea Nafarroan praktikan jarri den ekintza da. Argia aldizkarian agertutako artikululu baten aditzera ematen zenez, Elgeta ere toki apropos bezala kontsidera daiteke era honetako proiektu bat aurrera eramateko. Haizearen indarra ongien lortu daitekeen mendietan elize itxura duten dorre batzuk eraikitzen dira eta lortutako energia transformatu egiten da ondoren.

## Dirulaguntzak *Goibekokaleri*

Udaletxeak eta *Goibekokale* aldizkarikook azkenean heldu gara akordio batetara eta 3 miloiko diru laguntza eskeini digute. Horrez gain erredakzioa osatzen dugun guztiok, hilero soldata jasotzeko aukera izango dugu, hilean 15 egun lan eginda. Honen aurrean eta udale-txearen esku zabaltasuna ikusirik, lokal bat eskatu dugu; planteamendu honen aurrean, ez dute eragozpenik ipini eta 60 m<sup>2</sup> dituen lokal bat eman digute, berogailu eta guzti. Lau hilabete barru, beste bi ordenagailu erosteko aukera izango dugu. Hau ospatzeko abenduaren 28an afari bat egingo dute bi aldeek. Afari aurretik sinatuko da aurtengo diru kopuru zehatza eta aurrekontu herren barne izango dira hilero egiten ditugun afariak era.

**GORROTXATEGI  
HARATEGIA**

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

**PANADEROKUA TABERNA**

CONCHI IDIGORAS  
LARUNBATA ETA IGANDETAN  
BERTAKO BABARRUNAK  
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

## Sartu dotzuen iñuzentadaik onena? eta sartu dozun onena?



**Nekane Aranzabal Bihargiña (30 urte)**

Nik dakittenez. Ez doste iñuzentada bat be sartu, eta nik be ez dot sartu.



**Iñaki Gorostiza Tabernarixa (36 urte)**

Nik 14 urte nittue-nean sartu neban bat ona. Kulturean jolasten neban jokalaria berri bat etorri zan gurekin jolastera. Berotzera urtetzerakoan, gurea ez zen kamiseta bat eman zotzaun eta bera, harekin urten zan, oso barregarrixa izan zan.



**Josu De Vega Bihargiña (36 urte)**

Niri, gabonetako zesta batekin, Elorrixoko taberna batetik deitu zosten niri tokatu jatala eta jasotzera joateko esanez. Eta poz-pozik nindoiala esanez niri tokatu jatala esan zostan batek, Ze zenbaki dakazu?427-a, orduan zuri tokatu jatzu txirixoa.



**Isabel Aranzabal Jubilatua (76 urte)**

Nik ez dot inoiz sartu eta ez nahiz akordatzan sartu doten be, ez dot uste sartu doztenik.



**Rosari Egea Jubilatua (79 urte)**

Nik lagun bati telefonora joateko esan notzan ta gizurra zan. Oin ez ga akordatzan, zahartuta gare eta.



**Mikel Romaneli Ikaslea (17 urte)**

Ez dozte sekula iñuzentadarik egin edo ez naiz akordatzan behintzat. Nik amari sartu notzan inozentada bat, ura moztuko ebela esan notzan berak gauza mordua garbittu zittuen eta azkenian ura euan. Ondo pentsatzen jata inuzentadak eittea baina hartzea ez horrenbeste.



**GRONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

**VIVO**  
JANARI DENDA

**M<sup>a</sup> JESUS  
ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31

### Elgeta:

Gabonetan squash txapelketa antolatuta du udaletxeak 23 urtetik beherakoentzat.

### Bergara:

Amodiozko gutunen lehiaketa antolatuta du laugarren aldiz Jardun elkarteak. Lanak entregatzeko epea urtaririlaren 16an amaituko da. Sari interesgarriak izango dira.

**Berrigara** astekariak 5 urte bete dituela eta hainbat ekitaldi antolatuta ditu.

Abenduaren 28an osteguna, **Mahaingurua** egongo da gaur egungo euskal musika gaitzat hartuta. Parte hartzaileak: EH sukarra taldeko Norton, Maixa eta Itziar, Mikel Markez, Exkixu taldeko Alex kantaria, Sorotan Beleko Gorka kantaria. Moderatzailea: Joseba Etxeberria esataria

Lekua: Migel Altuna institutu zaharreko aretoan 19:30etan

### Rock Jaialdia:

Egun Berean, Xabier Montoia eta Deabruak Teilatueta. Gartzela zaharrean 22:00etan, sarrera 400pta.

ZORIONAK BERRIGARA!



**ENRIKE ORMAETXEA  
BIHARGIÑA**

- Non egiten duzu lan? Eibarren. Zertan? Erremintxa fabrika baten.
- Gustakoa dozu lana? Bai.
- Eskontzeko asmorik? Momentuz ez.
- Zein da zure bizitzako ametsa? Urte askuan ondo bizitzia.
- Durangoko azokan egon zara? Aurten ez.
- Zure musikaririk gogokoena? Tapia eta Leturia.
- Zer eraten duzu tabernetan? Egunez ardua eraten dot eta gaeuz Gin Kasa.
- Nora eruangoz zinu zure ametsetako neska? Hawaira.
- Kirolik egiten dozu? Momentuz ez, lesionauta nago ta.
- Kirolik gustokoena? Pelotia.
- Nor da Euskal Herriko pelotaririk onena? Retegi.
- Nork irabaziko dau binakako txapelketia? Nere ustez Elkorok eta Unanuek.
- Ba dakizu nola prebenitu HIESA? Bere neurrixak hartuta.
- Elizara joaten za? Ez.
- Otoitz egitera joan zinen azken aldixa? Oin dala 20 urte.
- Badaukazu animalirik etxian? Mordua.
- Elgetan ba dago martxaririk? Aste bukaeran ez.
- Soldaduzkara joan za? Bai.
- Nori emongo zautzake izugarrizko musu bat? Neska eder bati.
- Gehien erabiltzen dozun piropoa? Sarritxan, Tia Buena.
- Gaztea sentitzen zara? Bai.
- Gustatu jatzu bapateko hau? Bai, asko.

## Horroroskopoa

♈ <b>Aries:</b> Zaindu estarrixa... olentzero ondo abesteko.	♉ <b>Taurus:</b> Zure etxea non dagoen ez daki olentzerok. Zeaittik ete da?	♊ <b>Geminis:</b> Ez dago alboko piñadixa bota beharrik, gsbonetako arbolia jartzeko.	♋ <b>Cancer:</b> Disgustorik nahi ez baduzue ez pisatu otsailera arte.
♌ <b>Leo:</b> Ez erosi ikatza bestientzat, zuri be faltako jatzu eta.	♍ <b>Virgo:</b> Ez jantzi zapatarik, zuei katiuzkak falta egingojatuzue eta.	♎ <b>Libra:</b> Oin izango dittuzue opor luzeak ez baduzue estomagoa zaintzen behintzat.	♏ <b>Escorpio:</b> Horrelako martxan nahi aiña erizain bizitatuko dittuzu.
♐ <b>Sagitaris:</b> Laga zure errejimenak eta ongi pasau gabonak urtean behin dira eta.	♑ <b>Capricornius:</b> Abesten hobetzen ez badozue, gura aiña edur egingo dau.	♒ <b>Acuarius:</b> Kontuz txanpanaren burbujekin, baten-batek kalte eñ ezkeru...	♓ <b>Piscis:</b> Aurten ere olentzerok ikatza? Segi horrela, eta ez jatzu inoiz faltako.

**ER  
HARATEGIA  
ASTI**

San Roke 6  
Tel: 768168.

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak                      Sukaldeak  
Etxaurreak                      Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

**M<sup>a</sup> Karmen  
Lenzeria**

Lenzeria eta  
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.  
Tel: 78 90 40

## ARRASATE PRESS: HERRI ALDIZKARIEN AINTZINDARIA, ZAZPI URTEKO LANA

- Joan zen astean 300. alea ospatu zuten arrasatearrek. Bergaran berriz, Berrigarak bere 5. urteurrena bete du. Indartuz doan prentsa lokaleko mugimenduaren isla dira-

Prentsa lokalaren mugimendua ikaragarri hasi da azken urteotan Euskal Herri mailan. Era honetako aldizkari batek iraun dezan ezinbestekoa da herritarren inplikazioa, eta halabeharrez administrazioaren laguntza, euskalduntze prozesuan eta informazioaren hurbiltasunak duten garrantzia kontutan izanda.

300. alea. Erraz esaten den zenbaki da, baina atzetik zazpi urteko lana dago, hainbat aldaketa eta beste horrenbeste arazo eta oztopo. Egunean egunekoa eginez eta astero beraien jardunari gogoz helduta, Arrasate Pressekek merezi duen tokia lortu du. Gainera eta bide berdinetik jarraituz, Euskal Herrian hainbat eta hainbat aldizkari sortzen ari dira, tokian-tokiko informazioari leku bat egin asmoz; honekin batera beharrezkoa da azpimarratzea herri baten alfabetazio lanean duen eragina.

Arrasate Press da herri aldizkari eta prentsa lokalaren aintzindaria. 1988an atera zuen bere lehen alea eta zazpi urteko ibilaldi honetan esperientzia ugari izan ditu. Martxelo Otamendik dioen bezala, "bere ondoren jaio diren

aldizkari gehientzat begiratu beharreko isplua izan da".

Arrasate Press-ek izan zuen lehen zuzendaria, Joxe Aranzabal izan zen. Bararekin batera lehen urrats haiek ematen beste hiru gizon zeuden. Denen artean eta hasiera guztiak bezala beti dira sail xamarak, udaletxearekin jarri ziren harremanetan eta era berean, herriko talde eta mugimendu ezberdinekin. Denborarekin, lehen ale hartatik itxura aldaketa ugari jasan ditu baina oinarriak berdinak dira.

### Arrasate Press orain.

Egun, zuzendari lanetan Beñardo Kortabarria 31 urteko antzuolar kazetaria dabil eta berarekin batera lan talde zabal bat: erredakzio lanetan dauden kazetariak, maketatzaile eta disenatzaile bat, publizitate arduraduna, gestio lanetan dabilen lan taldea, banaketaz




Hauek dira Arrasate Press-eko lan taldea osatzen dutenak. (Argazkia Arrasate Press).

arduratzen den elkarte eta orohar Arrasate Press ostiralero etxean jasotzea posible egiten duen ekipoa. Lana ostegunean hasten da, lehen bilerarekin eta hemen erabakitzen dituzte edukiak; orduan hasten da abentura. Informazioa bilatzera irten behar da, argazkiak egin eta errebelatu, orrialdeak maketatu, astero aldizkaria ateratzea posible egiten duen publizitatea kontratatu... Honela, egun gutxitan egiten da Arrasate Press.

*M.Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak dioenez, eskualdeko prentsak hiru helburu ditu:*

- 1. Euskararen sustapenean eta erabileran aldeko konpromezua berrindartzea.*
- 2. Industrializatutako hirietan euskara poliki-poliki sartzea.*
- 3. Euskararen erabilera sustatzea komunikabideetan eta kultura ekoizpenetan".*



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELATAN**



Galdaragintza arina  
Hoditeria  
Erremeritza  
Soldadura homologatuak

**Antonio Rodrigues Da Cruz**

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14



Azpiegitura on bat ezinbestekoa da eta herritar eta estamentu desberdinen arteko kontsentsua. Arro daude beraien helburua beteta dagoelako, eta beti arazoak egongo diren arren badute oinarri sendo bat.

### Beste adibide batzuk

Berrigara (bergararra), Eraz (durangaldekoa), Guaix (Sakanaldea, Nafarroa), Lau Haizetara (Orereta), Eta Kitto (eibartarra), Drogetenituri (Ermua), Geu Gasteiz (Gasteiz), Elgoibarren (elgoibarkoa), Aretxagazeta (aretxabaletakoa)... Hainbat aldizkari ezberdinek, *Goibekokalek* bezala, helburu berdinarak dituzte:

-Euskararen sustapenean lan egitea.

- Komunikabide egoki bat bihurtzea bertakoentzat.

Martxelo Otamendik, Euskaldunen Egunkariako zuzendariak, zera azpimarratzen zuen, "ikaragarria da, herri aldizkariak irakurleak trebatzen egiten duten lana; euskaraz sekula bi lerro segidan irakurri ez dituen herritarra jarri dute herri aldizkariak euskaraz irakurtzen".

### Elgetan zer?

Guk ez daramazkigu urteak ezta ehundaka ale ere, bederatzita hilabete eta bederatzita ale baino ez. Hala ere, baldintzak kontutan izanik konprometzua aurrera daramagula ezingo du inork ukatu.

Lehen esan bezala hasierak beti dira zailak eta oraindik ere hainbat oztopo gainditu beharko dugu baina herritarren laguntza dugula ikusirik prest gaude hobetzeko eta gehiago eskeintzeko. Guk ere itxura aldaketak eta diseinu aldaketak izango ditugu baina funtsa mantendu nahi dugu eta lanean gogor jarraitu. Honetarako denon laguntza ezinbestekoa da eta horrela gure ondoan izaten egongo zarete espero dugu.



Haxe da Arrasate Press-ek atera duen azken alearen aurpegia. (Argazkia Arrasate Press).

Lan baldintzak ez dira aldizkari horietan bezain onak, kontutan izanik diru laguntza murriz bat jaso dugula urte baterako eta agortuz doala. Bestetik udaletxearekin harremanak enkistaturik daude.

Apostu handia egin dugu eta azpiegituran miloira hurbilduz doan inbertsio bat egin dugu, hori zorretan dago oraindik. Bestetik kontu izan lan taldea osatzen dugunak ikasleak garela eta egin beharreko guztia asteburuan zehar egiten dugula. Aldizkari guztiak dituzten helburuen artean, finantzabidea gure kabuz lortzea bada ere, orain ez da posible. Espero dugu izango dela egunen batean.

Urte askotan aurrera egitea espero dugu, hobetuz eta eskeintza zabalago bat eskeiniz. Aldizkari hau herritarren topaleku bihurtu dadila, iritzi eta informazioaren mundua hurbilgotik ezagutuz eta biziz, Elgetak ere merezi baitu.

Martxelo Otamendi: "Ikaragarria da, herri aldizkariak irakurleak trebatzen egiten duten lana; euskaraz sekula bi lerro segidan irakurri ez dituen herritarra jarri dute euskaraz irakurtzen"

I  
L  
E  
A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A

Mª ESTHER

Tel: 76 81 67

P  
A  
T  
X  
IT  
A  
B  
E  
R  
N  
A

## Banco Santander

Aintzane Zabala Urien.

Salbador 11.

Telefona: 76.82.11

Orain Elgetan; jarri harremanetan eta ezagutu gure abantailak.

Salbador 3  
Tel: 768093Fernando  
OjangurenMª Jesus  
Mujika

# EGUBERRI ETA URTE BERRI ON!!!



## Dios te Salbe

Garai honetan festa haundiak ospatzen dira lurrean, gabonak eta eguberriak dauzkagu gure aurrean.

Dios te salbe, Abe Maria Jainkoak gabon diela, endredatzera etorri gera lotxo goxoan daudela. (Estribiloa)

Pipa hortzetan hartuta dator zainduaz bere neurria, opari asko ekartzen ditu ongi portatu ezkeru.


Hori dela eta kalean zehar ibiltzen gera kantari, itxaropena eskeini asmoz Euskal Herri guztiari.

Denbora ere aurrera doa gure lagun Olentzero, urte zaharrak agur esanda badator urte berria.

Eguberri hauetan ikastolako haurrak ez zuten hutsik egin urteroko zitan. Beste behingoz alaitu zituzten herriko kaleak eta Olentzero bazetorrela ere gogorarazi ziguten. Urteroko errepertorioari Dios te Salbe kantua eran-tsi zioten ikastolako ume, guraso eta andereinoek eta gu ere zur eta lur utzi gintuenez, kantua argitaratzea erabaki dugu.

Goizean, sekula baino jente gehiagok hartu zuen parte kantuan eta EGAKoen txanda iritsi zen arratsaldean.

Arratsaldean Gazte Asanbladakoek kantuen bitartez Olentzeroren etorrera ospatze-



az gain aterpea errebindikatu zuten. Dirua ez zaiela falta adierazi ziguten eta benetan falta dutena dela. Ez zuten dirurik batzea nahi izan asko harrituta geratu baziren ere.

Argazkitan ikus dezakezue goizean zein arratsaldean izan zen giroa.



## ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK  
JOSTAILUAK  
ALDIZKARIAK  
ESKOLARAKO TRESNAK

Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta



## IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK

24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828

Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3

# LEHIAKETA



Aurreko lehiaketako argazkia ondo baino hobeto begiratu beharra zegoen nor demondre zen jakiteko. Pare bat pertsonak bidali dizkigute eskutitzak, baina erantzun desegokia eman dutenez hurrengo baterako utziko dugu kamiseta banatzea. Dena den, ikusi nola moldatu genuen irudia. Orain ziur badakizuela nor den. Juan villar da bere izena eta egurra du bere lagunik onena. Orain errezagoa dirudi ezta? Juan Villar gertutik ezagutzeko nahia ez dugu galdu. Espero dugu laister elkarrizketaxoren bat izatea elgetarrok gertuagotik ezagutzeko.



Aurreko pertsonaiak izen eta abizenak zituen baina oraingo honen abizena ezin izan dugu jakin. Abizenaren faltan beraz, Euskal Herriko seme honen izena galdetzen dizuegu. Zuen erantzuna badakizue nora bidali, *Goibekokalera*. Elgetako Gazte Asanbladaren kamiseta eskuratzeko parada ezin hobea duzue, ANIMO!

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_  
 Erantzuna: \_\_\_\_\_  
 Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## KOMIKIA

<p>NIK, OLENTZEROK AURTEN ELGETAREN IZENONA ZABALDU DJTEN ELKARTEEI OPARIAK DAKARZKIET...</p>	<p>PILOTA ELKARTEA.</p>	<p>HELVUGA</p> <p>TXIRRIINDULARITZA E.</p>	<p>OLENTZEROKI LOKALE BATESKA D. EZAIKICEGU</p> <p>goibekokale</p>
<p>...HAVEI URREA DAGOKIE AZKEN URTEOTAN EGIN-DAKO LAN ONAGATIM...</p>	<p>...HAVEI BERDIN EZ BAITA ERRAZA HONELAKO LAISTERKETA EGITEA...</p>		<p>...HAVEI IKATZALI EZER GUTXI EGIN BAITUTE HERRIAGATIK.</p>

# SASKIBALOIA: BOSTGARREN GARAIPENA JARRAIAN

Estampaciones Elgetak bikain jarraitzen du Eibarreko txapelketan. Hilaren 16an lortu zuten garaipenari esker, badira jadanik bost partidu jarraian irabazten dituztela.

Azken bi neurketak uste baino errazago irabazi dituzte. Lehen partiduan azken denboraldian txapelkunak izan zirenen aurka jokatu zuten. Partidu honi baserik gabe egin behar izan zieten aurre, konpromezu ezberdinak zirela medio ezin izan baitzuten parte hartu. Hala eta guztiz ere ez zuten arazo haundiegirik izan garaipena lortzeko. Partidu hasieran Angelek sartutako hiru hiru-

koitzei esker 16 eta 2ko partziala lortu zuten partiduguztitan zehar diferentzia hori mantentzea lortu zuten.

Hurrengo partidua J.A.S.P taldearen aurka jokatu zuten, eta espero zen bezala garaipena lortu zuten. Azken emaitza 77 eta 52koa izan zen.

Orain atseden txiki bat izango dute Gabonak direlako eta urtarrilaren 14a arte ez dute beste



Estampaciones Elgetakoak baloi guztiak borrokatzen dituzte.

partidurik izango. Atseden hau dela medio urtero Arrasaten jokatu den txapelketan parte hartzeko asmoa zuten, azken bi urteetan jasandako porrotak ahazteko, baina zenbait arazo direla medio ez da txapelketa hau egingo, beste aukera bati itxaron beharko diote.

## PELOTA: NAHIKO HILABETE KASKARRA ELGETAR PILOTARIENTZAT

Hilabete hau ez da oso onuragarria izan gure pelotariarentzat. Hasteko, Xabier Uberak ezin izan zuen Gipuzkoako Baque txapelketako finalerdietatik pasatu, partidu eskasa jokatu ondoren txapelketa guztian erakutsi zuen maila bikaina pixka bat ilundu zuelarik.

Bestetik, "interclubs" txapelketan elgetar ordezkari guztiak kanporatuak izan dira. Nagusietan Ubera I. eta Iñurategik, Carrete eta De Santosen aurka galdu zuten bi partidura jokatu zen kanporaketan. Lehen partiduan 18-22 galdu zuten

eta bigarren partiduan 19-12 irabazten joan ondoren eta sailkapena eskuetan zeukatela ez ziren tanto bakar bat gehiago egiteko gai izan. Jubeniletan David eta Laskurainek galdu egin zuten Ordizian jokaturako partiduan. Partidu Horretan ezin izan zuen Ubera II.ak jokatu. Bakar-kako lehia berriz, Eñautek txapelketa bikaina egin ondoren finalerdietan Landa Añorgatarraren aurka galdu zuen 13-18.

### Gabonetako egitaraua:

- San Pablo de Ubera Torneoa  
10, 11, 12 urtetako umeak

parte hartuko dute.

- Eibarko Gabonetako Torneoa

Partehartzaileak: Mutikoak.

Nagusietan: Eñaut eta

Eduardo.

- Donostiako Intxaurren Torneoa

Partehartzaileak: Jubenilak:

Eñaut-David, Ubera II-Errarte.

Nagusiak: Ubera I-Iñurrate-

gi.

- Mungiako Torneoa

Partehartzaileak: Jubenilak:

Ubera II-?

Nagusiak: Ubera I-Iñurrate-

gi.

### BOLATOKI

#### TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

### ALDI DENDA

(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

## Elgetako gazteak Pegaso etxeak babestuko ditu hemendik aurrera

Eskolarteko txapelketan parte hartzen ari diren gazteek Pegaso izango dute babesle hemendik aurrera. Pegasori esker elgetako mutikoek arropa berria jasteko aukera izango dute. Aurki neskak ere txapelketan parte hartzen hasiko dira eta beste babesle

bat aurkitzea oso garrantzitsua izango litzateke, taldearen arduredunak esan digutenez. Txapelketari dagokionez, saskibaloian bigarren postuan bukatu ondoren eskubaloian jokatzeko hasi dira eta jokaturiko bi partiduetan galdu egin dituzte.



40 partaide inguru aritu ziren bolo txapelketan.

## Gabonetako bolo txapelketa Luzio Sarasketarentzat.

Hilaren 16an Bolatoki Tabernan jokatu zen gabonetako bolo txapelketan Luzio Sarasketa atera zen garaile. Bigarren postua Ulazia eibartarrentzat izan zen eta hirugarren postuan Fermin

Iribar sailkatu zen. Luzio, azken txandan eginiko tiraldi bikainei esker lortu zuen garaipena, aurretik nahiko atzeraturik baitzegoen sailkapenean.

### Roberto Irazabal Bergarako futbol taldera itzuli da.

Roberto Irazabalek Bergarako futbol taldera itzultzeko eskaintza jaso zuen duela aste batzuk, eta onartu egin du.

Ez da lehenengo aldia Robertok Bergaran jokatzeko duela, azken bi denboraldietan bertan jokatu baitzuen, baina aurten arrazoi ezberdinengatik utzita zeukan. Bergara futbol taldeak orain dela bi denboraldi lortu zuen preferentera igotzea, bertan nahiko paper ona egin duelarik. Aurten berriz oso kaskar dabilta eta taldeko entrenatzailea den Jabi Perezek erdialdean dauden hutsuneak betetzeko asmoz Roberto fitxatzea erabaki du.

### Urtarilean hasiko da futbito txapelketa.

Futbito txapelketa urte berriarekin batera hasiko da. Aurten inoiz baino talde gehiago apuntatu dira txapelketan jokatzeko. Kanpoko taldeen erantzunaren faltan zazpi dira izena emanda dauden taldeak, horien artean hainbat urtetan txapeldun izan diren Patxi Tabernako jokalaririk ohiak daude.

Iazko txapeldunei dagokionez esan, aurtenezinango dutela Iban Retolazaren parte hartzearekin kontatu, ikasketen direla eta, kanpoan pasatuko baitu urte guztia. Ibanen hutsunea betetzeko, Aritz Aranguren laguntza izango dute. Gainontzekoak urterokoak izango

dira. Bitxikeri bezala esan Zeletak bi talde aterako dituela aurtengo txapelketarako.

### Aitor Elkoro bikain binakako txapelketan.

Aitor Elkoro eta Mikel Unanue bikain ari dira eskuz binakako txapelketan. Gaur arte lau partidu jokatu dituzte eta lauretan garaile atera dira. Azkena, Lasas III eta Eugiri 22-18 txapelketako partidu kaskarrena eginez. Dagoeneko finalerdietarako txartela lortu dute eta garaipena lortzeko faborito nagusiak bihurtu dira. Aitor Elkoro txapelketako errebelazioa izaten ari da eta dagoeneko atzelari onenekin gonbaratua izan da.

## BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.  
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24  
Tel: 76 82 06

## ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua  
San Roke 2. Tel: 768151

## IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga  
Tel: 768072  
Salvador zeharbidea 2  
ELGETA

## ELGETAKO BERBETIA DALA ETA EZ DALA (2)

Nerea Loidik aurreko alian etaratako testuari jarraitzen dotzan zatixa dozue honen azpitan idatzitxa dagona. "beste edozein lurraldetan danok jakin badakigu bertako berbetia edo hizkuntzia ikastia eta ahalik eta onduen manejatzia biharrezkua dala" horregaitik galdetzen dotza bere buruari gure kasuan ze pasatzen dan eta ia geuria dan berbetia eta kulturiai bizkarra emoten dotzaun. "Holako altxorra (geure euskaria) galdu ez dein danok egin biharko dogu zeozer.

Izan be, pertsona nausixak ez dauke interferentziarik euren berbetan eta euskalkiaren forma garbixak gordeta dittue bai LEXIKO aldetik (Martixa-Martxua; Semendixa-Azaroa; mantxua; besadia- besarkada; zumia; seosela-nolabait; malutia; gorua; jastetxia...), bai aditz aldetik (apurtu jatan/jatazen-zitzaidan/zitzaizkidan; zekan/zekasen-zeukan/zeuzkan; eukitzeban/eukitzebazen; ezin zeikienezin zitekeen; dotzadotzadazdiot/dizkiot; geunkan/geunkasen; eukan/eukasen; notzan/notzazen; eukiesten-eduki ninduten; eioskun/eioskuen-egin zigun/egin ziguten; neban/nebasan; ikusioso/ikusiotzazu-ikusio duzu/ ikusi diozu; sartu inusen/inuesen- sartu gintuen/gintuzten...), bai DEKLINABIDE aldetik (Makiniaz...eta ez makiniakin) ESAERAK be ( "ortikos emendik", " edurra goixan

beian", "azkenetan euan", "beia joteben"- etzanda zeuden), eta azentua be era jatorrian( básua/basúa; harék ekarri dau/ hárek ekarri dau/ hárek ekarri dabe- hark/ haiek; oneí/ónei-honi/hauei).

Gaur egunian, euskalkixarenzabaltziaz edo mantentziaz gain, beste problema larri hau bizidou: EGUNEROKO BIZITZAN

EUSKERIAN BIHARRA SENTITZEN DA ALA EZ?

Horrekin hau esan nahi dot: beste edozein lurraldetan danok jakin badakiu bertako berbetia edo hizkuntzia ikastia eta ahalik eta onduen manejatzia biharreskua dala ( bestela katalanen jarrera ikustia besterik ez dago). Baina guri zer pasatzen jaku? Hain edukauak gaz geuria dan berbetia eta kulturiai bizkarra emoten dotzaula ala?

**"Pertsona nausixak ez dauke irtenferentziaik euren berbetan eta euskalkiaren forma garbixak gordeta dake, bai lexiko eta bai aditzian."**

Saso baten baserritar giruakin lotzen san euskaria, eta euskal kulturian oinarria BASERRIXA izan dala garbi daukau. Baña kalia be, euskariak, berdinberdin, bere lekua biharko leuke inoren lotsia izan barik.

Orduan berriro be preguntzen dot, ZERI BEGIRA GAOZ?

Aldizkari honen moduko lanak eñeskero eta herritarrak elgetarrez alde gustitxan eitteko ohitura hartuta ( dendan, kalia , buleguetan, bileretan, etxian), poliki poliki bultzadatxo bat emotia lortuko giñuke. Baiña danok gure aldetik zeozer ipinita eta nausixak gatziei (etorkizuna) aintxinako forma aberatsak zabalduz izan biharko leuke.


Amaitzeko, nere aldetik, bene-benetan ZORIONAK holako biharr hartzen hasi zarien kuadrilliari eta aurrera elgetar guztioi, danon artean, JO TA KE! holako altxorra ( geure euskaria) galdu ez dein.

N. Loidi

*"Hain edukauak gaz geuria dan berbetia eta kulturiai bizkarra emoten dotzaula ala?"*

**HAIZEA**  
**TABERNA**

Salbador 5 Tel: 768256 ELGETA



**METALEN**  
**SALEROSKETA**

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7  
Telf-Faxa: 768064 Elgeta

Argazkiak: Joakin Gaztesi.



## Garai bateko herri ekintza

Abenduaren 24an, makinatxo bat lan egin eta gero, jaiotza egitea lortu zen garai haietan. Honezkero, 30 urte pasatxo izango dira traktore gainean guzti hau prestatu zela. Bi argazki hauetan ez dira ageri parte hartu zuten guztiak, baina, herriak bultzatutako proiektu honek oso arrera ona izan zuen. Ikusi daitekeenez, ez zen ezer falta; asto eta guzti ipinita zegoen nagusi eta gazteenen gozamenerako. Herriak berez dauka indarra horrelako edo bestelako gauzak aurrera eramateko, baina tamalez, gaur egun, herri lanean eginiko gauzak gero eta gutxiago dira. Ea gauzak aldatzen diren guztion onerako.

Jaiotza bizidunez osatuta dagoela esan beharrik ere ez da egongo, hala ere, ez hautsi burua haurtxoa nor izango zen asmatzen, bizirik ez zuen bakarra baitzen.

Ezkerreko argazkian: Mari Jose Ojanguren, Mari Karmen Igartua, Fernando Larrañaga, erdian Ana Mari Gallastegi. Behean ezkerretik hasita: Inaki Gorosabel, Juan Mari Aranzabal eta azkena Iñaki Izagirre.

Eskuineko argazkian: Lorea Elgoro, Sebastian Aranzeta, Jesusita Iturrikastillo (Ama Birjina) eta Jesusitaren atzean Maribel Retolaza.

# labarria

## AUTOBUSAK

San Juan, 18  
48230 Elorrio (Bizkaia)

Telefonoak:

94 - 623 16 47 (Bulegoa)

94 - 658 21 55 (Etxekoa)

Tel. Mugikorra

908 - 67 52 56 (Eibar)

